

Bizkaiko Foru Aldundiaren /2018 Foru Dekretua, abenduaren 26koa, udalei eta mankomunitateei energia-eraginkortasunaren arloko jarduketetarako diru-laguntzak emateko oinarriak eta deialdia ezartzen dituena.

Decreto Foral ...de la Diputación Foral de Bizkaia /2018, de 26 de diciembre, por el que se establecen las bases y convocatoria reguladoras de la concesión de subvenciones a Ayuntamientos y Mancomunidades para actuaciones en materia de eficiencia energética.

<b>ERAKUNDE ONURADUNAK</b>	BLHko udalak/mankomunitateak	<b>ENTIDADES BENEFICIARIAS</b>	Ayuntamientos/mancomunidades del THB.
<b>DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN JARDUKETAK</b>	Tokiko Agenda 21 ekimeneko Ekintza Planaren barruan egon behar dira (2030 Agenda), Udalaren Energia Planarekin, Energia Iraunkorrerako Ekintza Planarekin edo Klima eta Energia Iraunkorrerako Ekintza Planarekin.	<b>ACTUACIONES SUBVENCIONABLES</b>	Deben estar incluidas en el Plan de Acción de la Agenda Local 21, Agenda 2030, con Plan Energético Municipal, Plan de Acción de Energía Sostenible o Plan de Acción por el Clima y la Energía Sostenible.
<b>Argiztapen publikoa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Kanpoko argiztapen publikoa</li> <li>Monitorizazio sistemak</li> </ul>	<b>Alumbrado público</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Alumbrado público exterior</li> <li>Sistemas de monitorización</li> </ul>
<b>Eraikin publikoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Giroetzea edota ur beroa</li> <li>Kogenerazioa/ trigenerazioa</li> <li>Barne-argiztapena</li> <li>Monitorizazio sistemak</li> <li>Baliabide berriztagarriak aprobetxatzeko instalazioak</li> </ul>	<b>Edificios públicos</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Climatización y/o agua caliente</li> <li>Cogeneración/ trigeneración</li> <li>Iluminación interior</li> <li>Instalaciones de aprovechamiento de recursos renovables</li> <li>Sistemas de monitorización</li> </ul>
<b>ESKURATU AHAL DEN DIRU-LAGUNTZA, GEHIENEZ</b>	Udalak: 48.000 euro (BEZa barne).	<b>CUANTÍA MÁXIMA DE LA SUBVENCIÓN QUE SE PUEDE OBTENER</b>	Ayuntamientos: 48.000 euros (IVA incluido).
	Mankomunitateak: 84.000 euro (BEZa barne)		Mancomunidades: 84.000 euros (IVA incluido).
<b>EMAKIDA ARAUBIDEA</b>	Norgehiagokakoa	<b>REGIMEN DE CONCESIÓN</b>	Concurrencia competitiva
<b>ESKAEREN EPEA</b>	2019ko otsailaren 28a	<b>PLAZO SOLICITUDES</b>	28 de febrero de 2019
<b>HARREMANAK</b>	LAGUNTZA, Erregistro eta Herritarrenganako Laguntza Bideratzeko Bulegoa (tel. zk.: 94 406 7777)	<b>CONTACTO</b>	LAGUNTZA, Oficina de Registro y Atención Ciudadana (Teléfono 94 406 7777)

#### ZIOEN AZALPENA

Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailak du Bizkaiko ingurumen-politika zehaztu eta garatzeko eskumena, ingurumen arloan kalitate handia duen lurraldea lortzeko. Politika hori printzipio hauetan oinarrituko da: iraunkortasuna, prebentzioa, erantzukizun kolektiboa,

#### EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

El Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural detenta la competencia de la definición y desarrollo de la política ambiental de Bizkaia, cuyo objetivo es lograr un territorio con una gran calidad medioambiental, basada en los principios de sostenibilidad, prevención, responsabilidad colectiva,



elkartasuna, gaitasuna eta subsidiaritasuna. Helburua da herritarren ongizatea eta garapen sozioekonomikoa lortzea, ingurumenaren iraunkortasuna kontuan hartuta (ekonomia berdea eta zirkularra).

Zehazki, Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiak bere egitekoen artean du, besteak beste, Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerriei laguntzea eta udalerrri horiek bultzatzea, haietan 21 Toki Agendak ezartzeko.

Eremu zabalago batean, Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaia Goazen 2030 izeneko agiri estrategikoa garatzen dihardu, agiri horrek bere jarduketa-ardatzetako bat honako hau delarik: "gizarte zein lurralde kohesioa eta aukeraberdintasuna dituen Bizkaia", ardatz hori hainbat helburu estrategikotan banatzen delarik, haietako bat "garapen iraunkorra ingurumenari dagokionez, eta orekatua lurraldeari dagokionez".

Testuinguru global batean, Nazio Batuen Erakundeak (NBE) Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda onetsi zuen 2015. urtean. Agenda horren zutabe nagusiak iraunkortasuna sustatzea, eta ahultasunak eta desorekak murriztea eta planetan pobrezia errotik desagerraraztea dira. Haren garapen iraunkorreko 17 helburuen artean azpimarratzekoak dira, ingurumeneko gaitetan, honako hauek: "energia eskuragarri, fidagarri, iraunkor eta modernoetarako sarbidea bermatzea", "kontsumo eta ekoizpen iraunkorren jarraibideak bermatzea", "hiriak eta giza-kokaguneak erresilienteak eta iraunkorrak izan daitezen lortzea", "aldaketa klimatikoaren eta haren ondorioen aurka egiteko premia neurriak hartzea". Plangintza integratuko esparru honetan, Eusko Jaurlaritzak Euskadi Basque Country 2030 Agenda sortu du, 2018an.

Bestalde, 2014an, Eusko Jaurlaritzak IV. Ingurumen Esparru Programa onetsi zuen, eta, 2015ean, 2015erako Klima-aldaketaren Euskadiko Estrategia; bietan, toki-erakundeekin eta energiarekin lotutako alderdiak azpimarratzen dira, eta biek lagunduko dute Klimari buruzko Pariseko Itunean (2015) erabaki ziren helburu globalak betetzen.

2016an, Bizkaian egin zen Hiri eta Herri Iraunkorren 8. Biltzarraren barruan, "Euskal Adierazpena" aldarrikatu zen. Euskal Adierazpenak, Europako hiri eta herrietarako ibilbide-orri berri legez, hiri eta gizartearen eraldaketa teknologiko, sozio-ekonomiko eta sozio-kulturalaren beharrezkoak aitortzen du, gure biztanleriarentzako bizikaltate duina bermatze aldera, baina, aldi berean, gure toki ekosistema eta ekosistema globalen mugak eta egungo baliabide naturalak errespetatuz. Ildo horretan, beharrezkotzat jotzen da energia-sistemak karboigabetzea eta baliabide horren kontsumo osoa murriztea eta, aldi berean, baliabide hidrikoak, uraren kalitatea eta airearena

solidaridad, competencia y subsidiariedad, favoreciendo el bienestar de la ciudadanía y el desarrollo socioeconómico en clave de sostenibilidad ambiental (economía verde y circular).

En particular, la Dirección General de Medio Ambiente tiene entre sus cometidos el impulso y apoyo a los municipios del Territorio Histórico en orden a la implantación en los mismos de las Agendas Locales 21.

En un marco más amplio, la Diputación Foral de Bizkaia está desarrollando el documento estratégico denominado Bizkaia Goazen 2030, que subraya como uno de sus ejes de actuación una "Bizkaia con cohesión social y territorial e igualdad de oportunidades", que se despliega en varios objetivos estratégicos entre los que se encuentra el de "Desarrollo medioambientalmente sostenible y socialmente equilibrado".

En un contexto global, en el año 2015 la Organización de las Naciones Unidas (ONU) aprobó la Agenda 2030 para el Desarrollo Sostenible. Sus pilares fundamentales son el fomento de la sostenibilidad, la disminución de las vulnerabilidades y las desigualdades y la erradicación de la pobreza en el planeta. Entre sus 17 Objetivos de Desarrollo Sostenible, cabe significar en materia medioambiental "Asegurar el acceso a energías asequibles, fiables, sostenibles y modernas", "Garantizar las pautas de consumo y de producción sostenibles", "Conseguir que las ciudades y los asentamientos humanos sean resilientes y sostenibles" y, finalmente, "Tomar medidas urgentes para combatir el cambio climático y sus efectos". En este marco de planificación integrada, el Gobierno Vasco dio luz a la Agenda Euskadi Basque Country 2030 el año 2018.

Por su parte, el año 2014 el Gobierno Vasco aprobó el IV Programa Marco Ambiental, y en el 2015 la Estrategia de Cambio Climático del País Vasco KLIMA 2050, destacándose en ambas los aspectos relacionados con las administraciones locales y la energía, que contribuirán al avance de las metas globales que se acordaron en el Acuerdo sobre el Clima de París del año 2015.

En 2016 se promulgó la "Declaración Vasca" en el marco de la 8ª Conferencia de Ciudades y Pueblos Sostenibles, que tuvo lugar en Bizkaia. La Declaración Vasca, como nueva hoja de ruta para ciudades y pueblos europeos, reconoce la necesidad de transformación tecnológica, socioeconómica y sociocultural de ciudades y sociedades, con el ánimo de asegurar una calidad de vida digna para nuestra población al tiempo que se respeten los límites de nuestros ecosistemas locales y globales, y los recursos naturales disponibles. En esta línea, se considera necesario descarbonizar los sistemas de energía y reducir el consumo total de este recursos y, asimismo, proteger los recursos hídricos, la



babestea.

Ondoren, eta Europa 2020 agiriaren marko estrategikoa kontuan hartuta, Europar Batasunaren Hiri Agentzia berria onetsi zen, Amsterdameko Itunaren bidez. Itun horrek trantsizio energetikoaren gaia lehenetsuz azpimarratzen du. Izatez, EBrako Hiri Agendaren zati handi bat energiaren ingurukoa da. Gaur egun, Europako hiri eremuek energiaren % 80 inguru kontsumitzen dute, eta haren zatirik handiena erregai fosiletatik dator. Gaurtik 2030. urtera bitartean eraikinetako energia-kontsumoa % 30 murrizteko helburu loteslea lortzeko, EBrako Hiri Agentziak Europar Batasunaren energiaren inguruko politika bultzatzen lagunduko du, elektrizitate-saretan, energia berriztagarritan eta eraginkortasun energetikoan inbertsioak eginez, batez ere eraikinetan.

Azkenik, 2016ko irailean Hiri Agenda berria onetsi zen Quitoan (Ekuadorren), Nazio Batuen Erakundeak (NBE) antolatutako Etxebizitza eta Hiri Garapen Iraunkorren gaineko Biltzarren (Habitat III) eremuaren barruan. Biltzar horretan, ingurumen-iraunkortasunaren printzipioa azpimarratzen da, energia garbia, hiri eraikin erresilienteak eta aldaketa klimatikoarekiko arintzea eta egokitzapena bultzatuz, besteak beste. Energiaren hornidura bermatzea, energia eskuragarria, energia-eraginkortasuna eta energia berriztagarriak dira Nazioarteko Hiri Agentziak azpimarratzen dituen kontzeptuak. Hortaz, energia nabarmentzen da giza-kokagune erresilienteagoak eta iraunkorrak lortzeko gai nagusi legez.

Gertuen daukagun gure errealtatera itzuliz, tresna erabat ona da Tokiko Agenda 21 edo 2030 Agenda delakoa, eta hona nola ulertzen den haren helburu nagusia, hau da, garapena: herritarren bizi-kalitatea hobetzea, oreka gordez tokian tokiko kapital naturalarekiko eta ahalmen ekonomikoarekiko, orain eta etorkizunean. Laburbilduz, ongizatea lortzea, ekosistemetako zerbitzuetatik abiatuta, baina ingurunean (natur. landa- eta hiri-ingurunean) ahalik eta ingurumen-eragin txikiena sortuz.

Tokiko Agenda 21 delakoa Tokiko Ekintza Planen (TEP) eta ingurumeneko beste plangintza-tresna batzuen bidez garatzen da ingurumenaren arloari dagokionez

Tokiko Agenda 21 horren garapen-tresnen barruan sartutako proiektu eta jarduketan artean badira ingurumenaren arloan funtsezkoak diren arlo batzuk, energia, esaterako.

Era berean, udalek beren estrategia garatu ahal izan dute energia-eraginkortasunaren arloan, energia iraunkorrerako ekintza-planen, klima eta energia iraunkorrerako ekintza-planen edo udalaren energia-planen bidez.

calidad del agua y la del aire.

Posteriormente, y considerando el marco estratégico del documento Europa 2020, se aprobó la nueva Agenda Urbana de la Unión Europea, mediante el Pacto de Amsterdam. El mismo resalta como tema prioritario la transición energética. De hecho, una gran parte de la Agenda Urbana para la UE se centra en la energía. En la actualidad, las áreas urbanas de Europa consumen cerca de 80 % de la energía, y la mayor parte proviene de combustibles fósiles. Para alcanzar el objetivo vinculante de reducción del consumo de energía del 30 % en edificios de aquí a 2030, la Agenda Urbana para la UE ayudará a impulsar la política energética de la Unión Europea, invirtiendo en redes eléctricas, energías renovables y eficiencia energética, principalmente en los edificios.

Finalmente, en septiembre de 2016 fue aprobada en Quito (Ecuador) la nueva Agenda Urbana en el marco de la Conferencia sobre Vivienda y Desarrollo Urbano Sostenible (Habitat III), organizado por la Organización de las Naciones Unidas (ONU). En la misma se destaca como principio la sostenibilidad ambiental, mediante la promoción, entre otras, de energía limpia, edificios urbanos resilientes y la mitigación y adaptación ante el cambio climático. Garantizar el abastecimiento de energía, una energía accesible, la eficiencia energética y las energías renovables son conceptos que se destacan en la Agenda Urbana internacional. La energía se erige, por tanto, como tema central hacia unos asentamientos humanos más resilientes y sostenibles.

Volviendo a nuestra realidad más próxima, la Agenda Local 21 o Agenda 2030 es una herramienta eminentemente práctica, cuyo objetivo es avanzar hacia el desarrollo sostenible, entendido como mejora de la calidad de vida de la ciudadanía, en equilibrio con el capital natural y con las capacidades económicas locales, ahora y en el futuro. En resumen, procurar el bienestar a partir de los servicios de los ecosistemas, pero con el menor impacto ambiental negativo en el medio ambiente (natural, rural y urbano).

La Agenda Local 21 se desarrolla, en su dimensión medioambiental, mediante los Planes de Acción Local (PAL) y otros instrumentos planificatorios energéticos y ambientales.

Dentro de los proyectos y actuaciones incluidas en los instrumentos de desarrollo de la Agenda Local 21, se encuentra la ejecución de actuaciones sobre sectores ambientales claves como la energía.

Asi mismo, los Ayuntamientos han podido desarrollar su estrategia en materia de eficiencia energética, a través de Planes de Acción de Energía Sostenible o Planes de Acción por el clima y la energía sostenible, o Planes Energéticos Municipales.



Hain zuzen ere, energia-baliabideen urritasunak eta energiaren erabilerak ingurumenean daukan eraginak ingurumeneko arazo handiak sortzen dituzte eta, hortaz, gero eta gehiago kezkatzen dituzte administrazioak eta gizartea oro har.

Gainera, energia-eraginkortasunari buruzko urriaren 25eko 2012/27/EB Zuzentaraua hartu behar da kontuan (bai eta eraikinen energia-iraunkortasunari buruzko 2010/31/EB Zuzentaraua, biak 2018/844 Zuzentaruak aldatua); zuzentaru horren arabera, estatu-kideek udalerrriak eta erakunde publikoak animatu behar dituzte helburu argiak dituzten energia-eraginkortasunari buruzko plan iraunkorrak eta integratuak hartzera. Hura, besteak beste, eraikinen eraginkortasun energetikoaren ziurtagiriari buruzko abenduaren 9ko 226/2014 Dekretuaren bidez gauzatu zen.

Horrela, bada, plan horren helburu nagusia da Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerrri eta mankomunitateetako instalazio eta eraikin publikoetan energiaren kontsumoa murriztea, energia-eraginkortasunaren aurrezpen handiagoa lortzeko neurrien ezarpenaren bitartez.

Hori guztia dela eta, eta 2014. urtetik garatutako egintzekin bat etorritz, eta energia-alderdieilehentasuna emanez, sendo bultzatu du Bizkaiko Foru Aldundiko Iraunkortasuna eta Inguru Naturala Zaintzeko Sailak Bizkaiko udalerrietako Tokiko Agenda 21 direlakoak eta beste plan energetiko batzuk garatzea eta, horren bidez, energiaren aurrezpenaren, eraginkortasunaren eta energia berriztagarrien arloetan udal ekintza planetan jasotzen diren inbertsio-proiektu lehentasunezkoak gauzatzea.

Foru dekretu honek bete egiten ditu erregulazio onaren printzipioak, zeinak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusten diren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuaren 3. artikuluan jasotzen diren (dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen da).

Horrez gain, Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuaren 14. artikulua xedatutakoarekin bat, honako txostenak egin dira

1. Proiektua sustatu duen sailak egindako txosten juridikoa
2. Genero-eraginaren ebaluazioari buruzko txostena
3. Kontrol ekonomikoaren txostena.

Foru-dekretu honetan, genero-ikuspegia jasotzen da, bai

En efecto, la escasez de recursos energéticos y la incidencia sobre el medio ambiente que tiene el uso de la energía, generan problemas medioambientales y, por tanto, influyen de manera creciente en la preocupación tanto para las Administraciones como para la sociedad en su conjunto.

Asimismo, debe tenerse en cuenta que la Directiva 2012/27/UE, de 25 de octubre, relativa a la eficiencia energética, y la Directiva 2010/31/UE relativa a la eficiencia energética de los edificios, modificadas ambas por la Directiva 2018/844, señala que los Estados miembros deben animar a los municipios y otros organismos públicos a adoptar planes de eficiencia energética sostenibles e integrados con objetivos claros. La misma se concretó, entre otros, mediante el Decreto 226/2014, de 9 de diciembre, de certificación de la eficiencia energética de los edificios del Gobierno Vasco.

Así, el objetivo prioritario de este programa de subvenciones es reducir el consumo de energía de las distintas instalaciones y edificios públicos de los ayuntamientos y mancomunidades del Territorio Histórico de Bizkaia, mediante la implantación de distintas medidas tendentes a lograr una mayor ahorro y eficiencia energética.

Por todo ello, y en línea con las actuaciones desarrolladas desde el año 2014, priorizando los aspectos energéticos, el Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural de la Diputación Foral de Bizkaia impulsa decididamente el desarrollo de las Agendas Locales 21 de los municipios de Bizkaia, y otros planes de naturaleza energética, para la ejecución de proyectos de inversión prioritarios en materia de ahorro, eficiencia energética y energías renovables contenidos en los distintos planes de acción municipales.

El presente Decreto Foral responde a los principios de buena regulación previstos en la Ley 39/2015 de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, y recogidos en el artículo 3 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 2/2017 de 17 de enero por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia.

Asimismo, tal y como establece el artículo 14 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 2/2017, de 17 de enero, se han emitido los siguientes informes

1. Informe Jurídico del departamento promotor.
2. Informe de evaluación de impacto de género
3. Informe de control económico

El presente Decreto Foral incorpora la perspectiva de género



hura prestatzeko orduan bai haren aplikazioan, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean eta Emakume eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan ezarritakoarekin bat. Gainera, kontuan hartu da 4/2018 Foru Arauan eta Bizkaiko Foru Aldundiaren azaroaren 19ko 141/2013 Foru Dekretuan xedatutakoa, zeinaren bidez jasotzen diren generoaren eraginaren aurretzako ebaluazioa egiteko jarraibideak. Ildo horretan, dekretu honen izapidetzean foru-arau horren 25. artikuluan eta foru-dekretu horren 2. artikuluan aipatzen den txostena sartu da, hau da, «Generoaren araberako eraginaren aurretzako ebaluazioari buruzko txostena».

Foru dekretu hauenez hori guztia gauzatzeko bidea, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauarekin eta diru-laguntzen Araudia onesten duen martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuarekin bat etorritik, Iraunkortasuna eta Inguru Naturala Zaintzeko foru diputatuak proposatu eta Gobernu Kontseiluak 2018ko abenduaren 26ko bilkuran eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau,

#### XEDATU DA

**Artikulu bakarra.** *Diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdiaren onespena.*

Onesten dira Bizkaiko Lurralde Historikoan Udalei eta mankomunitateei energia-eraginkortasunaren arloko jarduketetarako diru-laguntzak emateko oinarriak eta 2019ko diru laguntzen deialdia egiten da

#### XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Foru dekretu hau indarrean sartzen denean, indargabeturik geratuko dira beronetan xedatutakoaren aurka dauden nahiz beronekin kontraesanetan dauden maila bereko edo beheagoko xedapen guztiak.

#### AZKEN XEDAPENAK

*Lehena.* - Arauen garapena.

Baimena ematen zaio Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko foru diputatuari foru dekretu honetan ezarritakoak garatu, gauzatu eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan. Baimen horrek barne hartzen ditu diru-laguntzak ematea ere.

tanto en su elaboración como en su aplicación, tal y como se señala en la Ley 4/2005, de 18 de febrero y en la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres. Además, se ha tenido en cuenta lo dispuesto en la Norma Foral 4/2018 y el Decreto Foral 141/2013, de 19 de noviembre, por el que se fijan las directrices y las pautas a seguir para la realización de la evaluación previa del impacto en función del género. En este sentido, en su tramitación se incorpora el "Informe de Evaluación Previa del Impacto en Función del Género" al que hace referencia al artículo 25 de la Norma Foral y el artículo 2 del citado Decreto Foral.

Todo ello se instrumentaliza a través del presente Decreto Foral, de conformidad con lo previsto en la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, del régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, y en el Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, a propuesta de la Diputada Foral de Sostenibilidad y Medio Natural y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno de esta Diputación Foral en reunión de 26 de diciembre de 2018.

#### SE DISPONE

**Artículo Único.** *Aprobación de las bases y convocatoria de las subvenciones.*

Se aprueban las bases reguladoras de la concesión de subvenciones a Ayuntamientos y Mancomunidades del Territorio Histórico de Bizkaia para actuaciones en materia de eficiencia energética y convocatoria para 2019

#### DISPOSICIÓN DEROGATORIA

A la entrada en vigor del presente Decreto Foral, quedan derogadas cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongan o contradigan lo dispuesto en el mismo.

#### DISPOSICIONES FINALES

*Primera.* Desarrollo normativo.

Se autoriza a la diputada foral de Sostenibilidad y Medio Natural para dictar cuantas disposiciones considere necesarias para el desarrollo, ejecución y aplicación de lo previsto en el presente Decreto Foral. Esta autorización incluye la concesión de las subvenciones pertinentes.



*Bigarrena Indarrean jartzea*

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean foru dekretu hau.

Bilbo, 2018ko abenduaren 26a.

*Segunda.- Entrada en vigor*

El presente Decreto Foral entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia.

Bilbao, a 26 de diciembre de 2018.

Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko foru diputatua/ Diputada foral de Sostenibilidad y Medio Natural

Ahaldun Nagusia  
Diputado General

ELENA UNZUETA TORRE

UNAI REMENTERIA MAIZ

## 1. Xedea

Foru dekretu honen xedea da Bizkaiko Lurralde Historikoko udalei eta mankomunitateei diru-laguntzak norgehiagoka araubidean emateko oinarriak eta deialdia ezartzea, energia-eraginkortasunaren arloko planetan berariaz jasota ageri diren energia-eraginkortasuneko inbertsio-proiektuak egiteko.

Genero-ikuspegia kontuan hartuta egin behar dira diru-laguntzen programa honen itzalpean egindako proiektu guztiak, eta haietan erabiltzen den hizkuntzan eta irudietan ezin da egon bereizkeria eragin dezakeen ezer, ez eta jarduera edo ekintza baztertzailek ere.

## 2. Diruz lagundu daitezkeen jarduketak.

Foru dekretu honen barruan diruz lagundu ahal diren jarduketak hauek dira:

1.- Kanpoko argiztapena.

1.1- Kanpoko argiztapen publikoa.

Neurri honen barruan sartzen diren energia-jarduketak kanpoko argiztapen publikoan energia elektrikoa murriztea lortzen duten neurriak izango dira, agiriaren bidez justifikatutako A motako kalifikazio energetikokoak. Halaber, bete behar dituzte Kanpoko Argiztapen Publikoko Instalazioetako Eraginkortasun Energetikoari buruzko Araudiaren preskripzioak eta haien jarraibide tekniko osagarriak (1890/2008 Errege Dekretua) betetzen dituztenak. Horretarako, eskatzaileek haiek beren beregi betetzen dituztela adierazteko, [www.ebizkaia.eus](http://www.ebizkaia.eus) orrian moduan dagoen adierazpena sinatu egin beharko dute.

1.2.- Kanpoko argiztapen publikoko energiaren monitorizazio-sistemak.

Neurri honetan sartzen diren jarduketak monitorizazio iraunkorreko sistema bat jartzeko jarduketak dira, energia-kontsumoak urrutetik monitorizatzeko. Sistema horrek aukera emango du landako ekipoetan erregistratzen diren kontsumo-datuak automatikoki biltzeko eta datuok ebaluatzeko eta sistema hobetzeko egokitze-kudeaketarako aukera.

Ezin izango dira diruz lagundu ekipo eramangarrien bidez egiten diren energiaren monitorizazio-gastuak.

## 1. Objeto

Es objeto del presente Decreto Foral el establecimiento de las bases y la convocatoria para la concesión de subvenciones, en régimen de concurrencia competitiva, a los ayuntamientos y mancomunidades del Territorio Histórico de Bizkaia, para la realización de proyectos de inversión en materia de eficiencia energética que figuren expresamente recogidos en los distintos Planes en materia de eficiencia energética.

Todos aquellos proyectos realizados al amparo de este programa de ayudas incorporarán la perspectiva de género, no contemplando elementos de discriminación en el uso del lenguaje y de la imagen, ni actividades o acciones discriminantes.

## 2. Actuaciones subvencionables.

Las actuaciones objeto de subvención en el marco del presente Decreto Foral son:

1.- Alumbrado exterior

1.1- Alumbrado público exterior.

Las actuaciones energéticas consideradas dentro de esta medida serán aquellas que consigan una reducción del consumo de energía eléctrica en alumbrado público exterior, con una calificación energética, justificada documentalmente, de clase A. Asimismo, deben cumplir con las prescripciones del Reglamento de Eficiencia Energética en Instalaciones de Alumbrado Exterior y sus instrucciones técnicas complementarias (Real Decreto 1890/2008), declarando expresamente dicho cumplimiento mediante la suscripción de la declaración según modelo que se facilita en [www.ebizkaia.eus](http://www.ebizkaia.eus).

1.2.- Sistemas de monitorización energética en el alumbrado público exterior.

Las actuaciones consideradas dentro de esta medida serán las correspondientes a la instalación de un sistema permanente para la monitorización remota de consumos energéticos. Este sistema permitirá la recogida automática de los datos de consumo registrados en los equipos de campo, su evaluación y gestión adaptativa hacia la mejora del sistema.

No serán subvencionables los gastos de monitorización energética mediante equipos portátiles.



## 2.- Eraikin publikoak.

Neurri honen barruan sartzen diren energia-jarduketak egungo eraikin publikoetan energia elektrikoaren edota erregaiaren kontsumoa murriztea dakartenak izango dira.

Eraikinaren egituran edo eraikina inguratzen duten osagaietan eragiten duten jarduketek (lehiak aldatzea, isolamendu termikoak...) ezin izango dute diru-laguntzarik jaso.

Neurrietako bakoitzaren zehaztapenak hemen zehazten dira:

### 2.1.- Girotze instalazioak edota etxeko ur beroaren produkzioak (EUB).

Berotze, hozte edota etxeko ur beroaren (EUB) produzitze instalazioek, berriztapenean edo ordezkatzean, energia elektrikoaren edota erregaiaren kontsumoan murrizpena lortzen dutenak izango dira neurri honetan sartzen diren energia-jarduketak.

### 2.2.- Kogenerazioko / trigenerazioko instalazioak.

Kogenerazio edota trigenerazioko instalazio bat ezartzea dakarten energia-jarduketak sartuko dira neurri honetan.

### 2.3.- Barne-argiztapeneko instalazioak.

Egungo udal erakinen barne-argiztapeneko instalazioetan energia elektrikoaren kontsumoa murrizten duten energia-jarduketak sartuko dira neurri honetan. Larrialdiko argiztapeneko edo segurtasuneko argiztapeneko instalazioetan egiten diren hobekuntzak ez dira aintzat hartuko.

### 2.4.- Energiaren monitorizazio-sistemak.

Neurri honetan sartzen diren jarduketak egungo eraikin publikoetan monitorizazio iraunkorreko sistema bat jartzeko jarduketak dira, energia-kontsumoak urrunetik monitorizatzeko. Sistema honek aukera emango erregistratzen diren kontsumo-datuak automatikoki biltzeko eta datuok ebaluatzeko eta sistema hobetzeko egokitzekudeaketarako aukera

Ezin izango dira diruz lagundu ekipo eramangarrien bidez egiten diren energiaren monitorizazio-gastuak.

### 2.5.- Baliabide berriztagarriak aprobetxatzeko instalazioak.

Neurri honen barruan sartzen diren jarduketak egungo

## 2.- Edificios públicos.

Las actuaciones energéticas consideradas dentro de esta medida serán aquellas que consigan una reducción del consumo de energía eléctrica y/o de combustible en los edificios públicos existentes.

No podrán ser objeto de subvención actuaciones que incidan sobre la estructura del edificio o su envolvente tales como cambio de ventanas, aislamientos térmicos, etc.

Las especificaciones concretas para cada una de las medidas se detallan a continuación:

### 2.1.- Instalaciones de climatización y/o producción de agua caliente sanitaria (ACS).

Las actuaciones energéticas consideradas dentro de esta medida serán aquellas que consigan una reducción del consumo de energía eléctrica y/o de combustible en las instalaciones de calefacción, refrigeración y/o producción de ACS en su renovación o sustitución.

### 2.2.- Instalaciones de cogeneración/ trigeneración.

Las actuaciones energéticas consideradas dentro de esta medida serán aquellas que consigan la implantación de una instalación de cogeneración y/o trigeneración.

### 2.3.- Instalaciones de iluminación interior.

Las actuaciones energéticas consideradas dentro de esta medida serán aquellas que consigan una reducción del consumo de energía eléctrica en las instalaciones de iluminación interior de los edificios municipales existentes, excluyendo las mejoras en instalaciones de alumbrado de emergencia o alumbrado de seguridad.

### 2.4.- Sistemas de monitorización energética.

Las actuaciones consideradas dentro de esta medida serán las correspondientes a la instalación de un sistema permanente en un edificio público existente para la monitorización remota de consumos energéticos. Este sistema permitirá la recogida automática de los datos de consumo registrados, su evaluación y gestión adaptativa hacia la mejora del sistema.

No serán subvencionables los gastos de monitorización energética mediante equipos portátiles.

### 2.5.- Instalaciones de aprovechamiento de recursos renovables.

Las actuaciones consideradas dentro de esta medida serán





eraikin publikoetan energiaren kontsumoa murrizten dutenak izango dira, produkzio termikoko sistemak instalatuz, adibidez, biomasako galdarak, geotrukea eta eguzki-energia termikoko instalazioak.

aquellas que consigan una reducción en el consumo de energía en edificios públicos existentes, mediante la instalación de sistemas de producción térmica, tales como calderas de biomasa e instalación solar térmica.

Ondoko kostu hauek ezin dira diruz lagundu:

No se considerará como coste subvencionable:

- ✓ Inbertsioaren ondorioz egiten diren finantza-gastuak, langileria propioarenak eta lurrak erostearnak edo errentamenduan hartzekoak.
- ✓ Erabilitako ekipoen egiten diren inbertsioak.
- ✓ Makina autopropulsatuetan, ibilgailuetan, bizikletetan, eta merkatugaia eta bidaiariak garraiatzeko bitartekoetan egiten diren inbertsioak.
  - ✓ Ordenagailu eramangarriak eta beste IKT ekipoz batzuk edo komunikazio-ekipo mugikor batzuk eskuratzea.
- ✓ Oro har, argi eta garbi definituta ez dauden gastuak edo inbertsioaren energia-helburuak lortzea zuzeneko helburu ez dutenak.

- ✓ Los gastos financieros consecuencia de la inversión, los de personal propio y los de adquisición o arrendamiento de terrenos.
- ✓ Las inversiones en equipos usados.
- ✓ Las inversiones en maquinaria autopropulsada, vehículos, bicicletas y medios de transporte para mercancías y pasajeros en general.
- ✓ La adquisición de ordenadores portátiles y otros equipos TIC o de comunicación móviles.
- ✓ En general, todos aquellos gastos que no estén claramente definidos o que no tengan por finalidad directa la consecución de los objetivos energéticos de la inversión.

Diruz lagundu ahalko da ondasun edo zerbitzuak eskuratzeagatik ordaintzen den BEZa (fakturekin). Ez da diruz lagunduko baldin eta erakunde eskatzaileak zenbateko hori berreskuratu ahal badu edo konpentsazioa jasoko badu.

Sí se considera un coste subvencionable, el IVA satisfecho por la adquisición de bienes o servicios facturados. No será subvencionable en el caso de que sea susceptible de recuperación o compensación por parte de la entidad solicitante.

### 3. Baztertutako jarduketak

### 3. Actuaciones excluidas.

- ✓ Proiektu teknikoak, azterlanak edo txostenak idaztea eta auditoretzak egitea.
- ✓ Norbanakoei erabilera pribaturako laga zaizkien edo lagatzeko asmoa dagoen herri-ondasunetan edo jabego pribatupeko ondasunetan egingo diren obrak.
- ✓ Energia-zerbitzuen enpresaren figuraren bidez enpresei adjudikatutako kontratuetan jasotzen diren proiektuak edo jarduketa-sektoreak.

- ✓ La redacción de proyectos técnicos, estudios, informes o auditorías.
- ✓ Obras a realizar en bienes públicos cedidos o que se prevea ceder a particulares para uso privado, o en bienes de titularidad privada.
- ✓ Los proyectos o sectores de actuación contemplados en los contratos adjudicados a empresas bajo la figura de Empresas de Servicios Energéticos.

### 4. Erakunde onuradunak

### 4. Entidades beneficiarias

Foru dekretu honetako diru-laguntzak jaso ahal dituzte:

Podrán acceder a las subvenciones previstas en el presente Decreto Foral:

1.- Bizkaiko Lurralde Historikoko udalak, plan hauetako bat badute: Tokiko Agenda 21 ekimeneko Ekintza Plana (2030 Agenda), Udalaren Energia Plana, Energia Iraunkorrerako Ekintza Plana edo Klima eta Energia Iraunkorrerako Ekintza Plana, edo Euronet 50/50 proiektua.

1.- Los ayuntamientos del Territorio Histórico de Bizkaia con Plan de Acción Local de la Agenda Local 21, Agenda 2030, con Plan Energético Municipal, con Plan de Acción de Energía Sostenible o Plan de Acción por el Clima y la Energía Sostenible, o con proyecto Euronet 50/50.



2.- Bizkaiko Lurralde Historikoko mankomunitateek udalez gaindiko proiektuak egiteko laguntza eskatzen dutenean, eta proiektu horiek ukitzen dituzten udalerrien 21 Tokiko Agenden (2030 Agenda) barruan badaude, dekretu honetan ezarritako araubidearen arabera, proiektua egiteko eskumena eduki beharko dute.

3.- Aldez aurretik bete behar diren baldintza eta betekizunak.

Diru-laguntzak eskatzeko, honako betekizun eta baldintza hauek bete behar dira aldez aurretik:

a) Diruz laguntzea nahi den proiektuak edo jarduketak Tokiko Agenda 21en ekintza planean, Udalaren Energia Planean, Eskualdeko Energia Planean, Energia Iraunkorrerako Ekintza Planean edo Klima eta Energia Iraunkorrerako Ekintza Planean edo Euronet 50/50 proiektuan egon behar du, edo eta dagokion udalak, edo mankomunitateak onetsia izan, dekretu honetan ezarritako araubidearekin bat.

b) Diru-laguntza eskatzen duten erakundeek egunean egon beharko dute beren zerga betebeharrei eta zuzenbide publikoko eta Gizarte Segurantzako gainerako betebeharrei dagokienez, eta egoera horri eutsi behar diote, bai diru-laguntza eskatzen denean, bai hura onartu eta ordaintzen denean.

### **5.Eskabideak aurkezteko epea eta tokia.**

Diru-laguntzaren eskaera, udaleko alkateak edo mankomunitateko lehendakariak sinatuta, foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoko egunetik aurrera aurkeztu ahalko da.

Eskaera ondokoetan aurkeztu ahal izango da:

1.- Bulegora joan da:

- Iraunkortasuna eta Inguru Naturala Zaintzeko Sailaren Erregistroan (Rekalde zumardia, 30, 3. solairua, 48009 Bilbo), erregistroa zabalik dagoen orduetan (astelehenetik ostiralera, 08:30etik 13:30era).
- Foru Aldundiaren Erregistro Nagusian (Diputazio kalea, 7, beheko solairua, Foru Liburutegiko beirazko eraikina, Aldundiko Jauregiaren atzealdea, 48009 Bilbo): astelehenetik ostiralera, 08:30etik 13:30era eta astelehenetik ostegunera 16:00etatik a 17:30era.
- Hala ere, nahitaez betetzekoa izango da Bizkaiko Foru

2.- Las mancomunidades del Territorio Histórico de Bizkaia, cuando soliciten la ayuda para realizar proyectos de carácter supramunicipal que estén incluidos en las Agendas Locales 21, Agenda 2030, u otros planes de eficiencia energética de los municipios a que afecte el proyecto de que se trate y de acuerdo con el régimen establecido en el presente Decreto, debiendo ostentar la competencia para la realización del citado proyecto.

3.- Condiciones y requisitos previos y necesarios.

Serán condiciones y requisitos previos y necesarios para optar a las subvenciones indicadas las siguientes:

